



Elorriko udala

Kultura

ELORRIOKO UDALAREN ETA ARRIOLA KULTUR ARETOA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Elorrion, 2025eko otsailaren 10ean

BILDURIK: Alde batetik, JULENE LAZKANO ZENITAGOIA andrea, NAN 44.174.890-D, ELORRIOKO UDALEKO Alkatea (IFK P4803900B).

Eta, bestetik, MERTXE MUJICA BALANTZATEGI anderea, NAN 78864768E, ARRIOLA KULTUR ARETOA ELKARTEAREN (IFK G48448492) – aurrerantzean Arriola Elkarte- presidente moduan eta berau ordezkatzuz, aipatutako elkartearen zuzendaritza batzordearen akordiorekin bat etorritz.

AITORTU ONDOREN bata besteari behar besteko gaitasun juridikoa hitzarmena aurrera eramateko,

ADIERAZTEN DUTE:

- ARRIOLA KULTUR ARETOA (aurrerantzean ARRIOLA ELKARTEA) legalki eratutako elkarte delarik, bere funtzionamendua irekia, demokratikoa eta parte-hartzailea delarik eta herritar orori zabalik dagoela.
- Arriola Elkartearen helburuetako batzuk, beren estatutuen arabera, honakoak direnez (Elorrion kultura sustatzea eta zabaltzea eta arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen sustapena eta hedapena), bat datozela Elorrioko Udalarenekin.
- Elorrioko Udalak Dirulaguntzen Oinarri Erregulatzailerak onartu zituela 2008ko abenduaren 18an batutako Udalbatzaren Ohiko saioan (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2009ko martxoaren 9an argitara eman zirenak). Honako aldaketak izan zituen: lehenengoa, Udalbatzak 2010eko otsailaren 11n onartu zuena (eta BAO on maiatzaren 10ean argitara emana) eta bigarrena, Udalbatzak 2011ko abenduaren 28an onartutakoa (BAO on 2012ko otsailaren 10ean argitara eman zena).
- Elorrioko Udalak, bere eskumenen garapenean, beharra duela herritarren kultur premiak asetzeko, udal gobernantzaren legeek agintzen duten haritik.
- Arriola Elkarteak urteetan erakutsi duela arte eszeniko eta ikus-entzunezkoen, besteak beste, programazio, produkzio eta kudeaketa osoan dituen maisutasuna, prestakuntza eta jakinduria nabarmenak



Elorrioko udala

Kultura

eta herritik eta lurraldetik kanpo ere ezagunak eta aitortuak direnak.

- Arriola Antzokia dela elkartearen egoitza izateko eta ekintzak garatzeko alde biek adosten duten eraikina. Arriola Elkartearekin adostutakoa garatzeko baino ez erabiliko den eraikina.

Elorrioko Udalak lankidetzaz-esparru bat formalizatu nahi du ARRIOLA ELKARTEAren, aipatutako ekintzak sustatzeko interes komuna bideratzeko asmoz. Horrexegatik, ondorengo lankidetzaz-hitzarmena izenpetzen dute, jarraian aipatzen diren baldintzak betetzen dituen.

1. XEDEA.

Dirulaguntza hau erakunde onuradunak, Arriola Kultur Elkartek, antolatu eta garatzen dituen Arriola Antzokiko zein jaietan eta jai txikietako ikuskizunak ditu helburu.

2. DIRULAGUNTZAREN IZAERA

Dirulaguntza izenduna denez, funtsak ezin zaizkie aplikatu xedean adierazitakoa ez den beste izaera eta/edo helburu bateko gastuei. Dirulaguntza hau bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, beste edozein erakunde publiko edo pribatu batzuetatik etorrira ere, baina jasotako funtsen zenbatekoak ezin izango du, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

3. ALDEEN BETEBEHARRAK

- ELORRIOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.
 - Elorrioko Udalak diru-laguntza emango dio ARRIOLA ELKARTEAri. Ordainketa urteroko udal aurrekontuko "Arriola Kultur Aretoa" diru-atal izendunaren partidaren kargura egingo da.

Diru-laguntza honek xede izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Elorrioko Udalarekin hitzarmen honen bidez hartzen dituen konpromisoei aurre egiteko erabiliko du.

2025erako 2025.3300.481.02 diru-atala da eta zenbatekoa 135.000,00€-koa. Konpromiso bera hartzen du hitzarmenaren iraupeneko urte bakoitzerako.

Hala ere, kopurua urteroko udal aurrekontua egiterakoan errebisatu



Elorrioko udala

Kultura

ahalko da eta hitzarmena aldatu, beharrezkoa bada.

- Elorrioko Udalak gonbidapena bidaliko dio Arriola Elkarteari, gutxienez urtean birritan, elkarteak Kultura Informazio Batzordean bere programazioa aurkeztu dezan eta batzordekide guztien artean baloratuko da hurrengo hilabeteetako kultur agendaren eraketa, gainontzeko udal departamentuen eta herriko elkarten egitaraua ere ikusita.
 - Elorrioko Udalak elkartearen espazio, udal tresna, zerbitzu eta gainerako baliabideen erabilera erraztu dio elkarteari, adostutakoa garatu ahal izateko.
 - Indarrean jarraitzen du “cine Arriola” eta bere barruan dauden udalaren jabetzakoak diren instalazio guztiak erabiltzeko baimenak, Elkartearen estatutuaren jasotako xedeetarako, eta Toki-erakundeen ondasunen erregelamenduaren 77. artikuluan eta Estatuaren Ondareari buruzko Legearen 92. artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, Udalak baimena emango dio Elkarteari, posible denean, gainontzeko udal-higiezinak unean-unean erabiltzeko, hala nola kiroldegia edo probalekua.
- **ARRIOLA ELKARTEAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.**
 - Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan (Alderdi Politikoen Ekonomia eta Finantza Jarduera Kontrolatzeko martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoak emandako idazkeran) ezartzen den onuradun izaera lortzeko debekuetako baten eraginpean, eta, bereziki, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzatik eratorritakoak egunean izatea.
 - Arriola Aretoaren programazio finkoa egingo du. Azken urteetako haritik jarraituz, nagusiki, arte eszenikoak programatzeko dira, hots, antzerkia, dantza eta musika ikuskizunak. Horrez gain, zinema kartelera ere eskainiko du astero. Uda sasoiaren etena adostuko da udal korporazioarekin.
 - Egitarauak publiko-mota guztien beharrak asetuko ditu, heldu zein umeenak, euskaldun zein erdaldunenak, aditu zein



Elorrioko udala

Kultura

komertzialean zaletutako publikoarenak.

- Egitarauak udal ildo estrategikoak aintzat hartuko ditu eta, hala, egunek markatzen duten gaiaren inguruan programatuko dute martxoaren 8an eta azaroaren 25ean nagusiki, arloko udal teknikariaren jakinaren gainean jarriz. Irizpide bera jarraitu beharko da udalak beste batzuk zehazten baditu.
- Programatzen diren ekintzen publizitatean Elorrioko Udalaren logo instituzionala agertuko da eta bestelako komunikazioetan ere jasotako dirulaguntzaren finantzatutako ekintzak direla adieraziko.
- Elkartek publikoa sortzeko kanpainak egingo digu, eskola umeen edota nagusien artean.
- Arriola Elkartek ikuskizunen kontrataziorako proposamenak egingo dizkio Elorrioko Udalari, herriko jaiak eta jai txikietarako ere bai. Arriolako programatzaileak arloko zinegotziari egingo dizkio proposamenak, kultura batzordeak aztertu eta TGBn onartzeko proposatuko dituenak. Beraz, indarrean jarraitzen dute 2012an hitzarmenaren eranskin gisa onartu ziren aktibitateak: Inauteriak, San Juan igoera, Berrio-Otxoa eguna, Musikaire, Ferixa Nausikoak, Errebonbilloak eta Gabonak eta beste batzuk denborarekin finkatu direnak, hala nola, Break on Stage, Akadantz, 24 ordu digilatean, Jazz Blues Jaialdia edota Munduko kontu kontalariak.

Programazioa eta exekuzio osoa izango dira elkartearen ardura. Honelakoetan, elkarteak gutxienez hilabete lehenago bidaliko ditu egitarau eta aurrekontu proposamenak kultura departamentura, beharrezko diren kontratazio eta gastu onarpenak bideratu ahal izateko.

- Elorrioko gainerako elkartearen aholkulari ere izango da Arriola Elkartea, honakook euren helburuen zabalkunderako kultur ekintzak programatu behar dituztenetan.
- Elorrioko Udalaren dirulaguntzen ordenantzak jasotzen dituen baldintzak beteko ditu, babesleari zor zaion aitorpenari



Elorriko udala

Kultura

dagokiolakoan eta gainontzekoetan.

- Udalak eskatzen dion guztietan, ARRIOLA ELKARTEA izango da elkartearen helburuekin bat datozen udal gaietan aholkularia.
- Egitasmo berezietan, kasuan kasuko lankidetzak adostuko dute erakunde eta elkarteak.
- Helburu bererako jasotzen dituen diru-funtsen berri ematea Elorriko Udalari, nahiz eta jasotze hori Udalaren dirulaguntza jaso ostean gertatu.
- Elkarteak honako hizkuntz irizpideak beteko ditu:
- Udalarekiko harremanak, idatzizkoak zein ahozkoak euskaraz burutuko dira.
- Hitzarmen honen xede diren ekintza guztien publizitatean eta iragarkietan euskarak ziurtatuta egon behar du.
- Jendaurreko ekitaldietan: prentsaurrekoetan, sari-banaketetan, ekitaldietako megafonia erabiltzen den kasuetan eta abarretan euskarak ziurtatuta egon behar du eta lehentasunezko trataera izango du.
 - Elkarteak honako emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpideak beteko ditu bi arau hauek ezarritakoari jarraituz: Martxoaren 16koa 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina (aurrerago EGBL) eta Elorriko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Udal Ordenantza (BAO, 2023ko martxoaren 27a). Bereziki:
- Programazioan genero-ikuspegia txertatuko da.
- Kideak onartzeko prozesuan edo bere funtzionamenduan genero edo sexu-arrazoiengatik diskriminazioarik ez egitea.
- Juntan edo zuzendaritzan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua EGBLren 27. eta 28. artikuluek ezarri bezala.
- Diruz lagundutako jarduera orok komunikazio inklusiboa erabiliko du,



Elorrioko udala

Kultura

non ez diren erabiliko pertsonak sexu, genero, jatorri edo bestelakoengatik umiliatu, degradatu edo estereotipatzen dituzten irudiak edo idatzizko beste edozein komunikazio-elementu. Pertsonen aniztasuna irudikatzen duten irudiak eta hizkuntza bultzatuko dira.

- Hasierako proiektuan zein justifikazio-memorian informazio hau jasoko da: generoaren arabera bereizitako onuradunen gutxi gorabeherako kopurua eta horien profila (adina, dibertsitate funtzionala duten pertsonak... edo beste datu interesgarri batzuk).
- Erabiliko den material guztietan estereotipo sexistak edo emakumeak diskriminatzen dituen adierazpenik ez agertzea.
- Sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta jokaera transhomofobikoa saihesteko, prebenitzeko eta arreta egiteko neurriak izango dituzte kideei zein erabiltzaileei zuzenduta.

4. ARRIOLA ARETOA ERAIKINAREN MANTENU ETA KONPONKETAK

- Arriola Antzokia udal eraikina izaki, argia, gasa, garbiketa eta ohiko mantenuko gastuak Elorrioko Udalak ordainduko ditu.
- Telefono gastuak elkarteak ordainduko ditu.
- Horniketa, konponketa edo obra txiki premiazkoenen kasuan, beharra antzeman bezain pronto, Arriolako koordinatzaileak kultura arloko zinegotziari jakinaraziko dio. Honek udal arkitekto teknikoaren eskuetan ipiniko du gaia eta gainontzeko eraikinetarako prozedura bera jarraituko du hirigintza sailak. 300 eurotik beherakoak direnetan, Arriolak ordainduko ditu. Kultura Batzordean informazioa emango du zinegotziak.
- Obra handiak eta inbertsioak aldeztu aurretik aurreikusiko dira eta udal aurrekontuetan jasota egongo dira.

5. KUDEAKETA-ORGANOA

Dirulaguntza hau kudeatzeko organoa Elorrioko Udalaren Kultura Saila da. Memoria ekonomikoak Kontuhartzailtzak aztertu eta balidatuko ditu.

6. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ETA ZURIKETA EPE ETA ERA



Elorrioko Udalak urte bakoitzeko udal aurrekontuetan jasotako kopurua bi epetan emango dio elkarteari, hots, urtarril eta uztailean honek aurreko epeari dagokion dokumentazioa aurkeztu ostean. Beraz, urtarril eta uztailean aurkeztu beharko du elkarteak aurreko sei hilabetekoari dagokion dokumentazioa. Dokumentazioak honakoak jasoko ditu:

- balantze ekonomikoa, jarduerak eragindako gastuak zein diru-sarrerak zehaztuta. Hori ahalbidetzeko, elkarteak udal kontu-hartzailearen jarraibideei jarraituko die, erabili beharreko programa informatiko, prozedura eta abarrei dagokienean.
- aktibitatearen oroitidazkia: ekitaldietan zentratuta, arrakasta, publikoaren fluxuak eta antzekoak azalduta
- aitorpen erantzuleak
 - o Diruz lagundutako jarduera finantzatu duen beste diru-sarrerarik edo dirulaguntzarik badago, zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko dira. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duen dirulaguntzarik jaso ez bada, adierazpen bat egin beharko da diruz lagundutako jarduera finantzatu duen dirulaguntzarik jaso ez dela adieraziz.
 - o Dirulaguntzaren oinarrietan ezarritako betebeharrak guztiak betetzen dituela eta, bereziki, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekuetako baten eraginpean ez dagoela eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzatik eratorritakoak egunean dituela adierazten duen adierazpena.
 - o Berdintasunaren arloko dirulaguntzaren oinarrietan ezarritako betebeharrak guztiak betetzen dituela eta, bereziki, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez duela adierazten duen adierazpena.
- Lehenengo eskaria egitean, hirugarrenen alta behar bezala beteta aurkeztuko du. Agiri hau paperean edo online egin daiteke. <https://www.elorrio.eus/eu-ES/Izapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=295cb091-c85c-4be0-b4f4-c485119cdb35>

7. ITZULKETA

Xede bererako beste diru-sarrera batzuen berri izanez gero, Udalak emandako dirulaguntza birformulatuko du eta, gainfinantzaketarik izanez gero, dirulaguntza bera edo haren zati bat itzuli beharko du (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36-43 artikulua).



Elorrioko udala

Kultura

8. IRAUPENA

Hitzarmena bertan behera geldituko da Elorrioko Udalak zein ARRIOLA ELKARTEAK horrela adieraziz gero eta urtero aztertu eta berritu ahal da. Besterik ezean, hitzarmenak lau urteko balioa du.

Epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena lau urte gehiagoz luzatzea edo azkentzea. Epea lau urte gehiagoz luzatzekotan, Elkarteak kontu-ikuskaritza independentea egin beharko du, eta Auditoretzaren emaitza Udalari emango zaio. Kontu-ikuskaritzaren gastuak Udalak ordainduko ditu.

Hitzarmen honen ondorio-data 2025eko urtarrilaren 1ekoa izango da.

9. HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA

ARRIOLA ELKARTEAK hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetzaz hitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako diru-laguntza itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitute udal ordenantzak eta dirulaguntzak arautzen dituzten legeak.

10. ARAUDI OSAGARRIA

Hitzarmen honetan aurreikusi ez den guztirako, honako hauek aplikatuko dira: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa (DLO); 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena (DLO), Elorrioko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza eta dirulaguntza publikoak eta administrazio-prozedura arautzen duten toki-araubideko gainerako legeak eta Elorrioko Berdintasunerako Ordenantza (2023ko azaroaren 25ean Osoko Bilkuran onartuta).

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen duena.

11. DATU-BABESA

Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorraren eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (DBLO) arabera, onuradunari jakinarazten zaio emandako datu pertsonalak honela tratatuko dituela Elorrioko Udalak:



Elorrioko udala

Kultura

- Arduraduna: Elorrioko Udala - dpo@elorrio.eus Datuen babeserako ordezkaria: Grupo Unive Servicios Jurídicos S.L. dpo@elorrio.eus.
 - Helburua: 2025ean Elorrioko Udalak ematen dituen dirulaguntzak kudeatzea.
 - Legitimazioa: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren ondoriozko legezko betebeharra.
 - Kontserbazioa: Datuak aipatutako helburua betetzeko behar-beharrezkoa den denboran gordeko dira, betiere artxibatzeko araudi aplikagarriak ezartzen duena errespetatuz.
 - Hartzaileak: Arduradunak datuak jakinarazi ahal izango dizkie gaian eskumena duten agintariei.
 - Eskubideak: Pertsona eta elkarte eskatzaileek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, mugatzeko, ezabatzeko, aurka egiteko edo eramateko eskubideak erabil ditzakete, idatziz, Elorrioko Udaleko erregistrora edo Datuak Babesteko ordezkariaren helbide elektronikora (dpo@elorrio.eus). NANaren edo sinadura elektronikoko aitortuaren kopia erantsi beharko da.
- Era berean, jakinarazten da erreklamazio bat aurkez daitekeela Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

Adostutakoaren lekuko, partaideak honako hitzarmen honen bi ale izenpetu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ARRIOLA KULTUR ARETOA elkartearen izenean	ELORRIOKO UDALAREN izenean
Izp: MERTXE MUJIKALANZATEGI	Izp: JULENE LAZKANO ZENITAGOIA